



3.1. Zerga eta tasen ordainketak banketxean helbideratzea

Espediente kodea: **HELB**

Zer da? Zertarako da?

Aldizkako udal zerga eta tasen ordainketak banketxeko kontu batean helbideratzeko edota banketxeko kontua aldatzeko. Hauek dira helbidera daitezkeen zerga eta tasak: Ibilgailuen gaineko zerga, Hiri Ondasunen gaineko zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga eta Ura eta Estolderia, Hondakin bilketa eta Bado edo Ibien tasak.

Nork eska dezake?

Interesdunak edo haren legezko ordezkariak.

Aurkeztu beharreko agiriak

[Eskaera-orria eredu normalizatua.](#)

Ordezkaritza egiaztatzen duen agiri normalizatua

Nola eskatzen da?

Aurrez aurre: hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00.**

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

Telefonoa: ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

Internet: udalaren www.hernani.eus web orriko egoitza elektronikoan

Posta arrunta: ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Doan

Prozeduraren epea

Unean bertan

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

1. Helbideratzeko eskaera jaso, aldaketa USOAn aplikazioa egin eta Espedienteen Kudeaketarako Programan erregistratu.
2. Eskaeraren kopia interesdunari eman.

Tramitatzekeo ardura duen udal saila

Errenta Saila

Informazio gehiago: 943 337046 edo errenta@hernani.eus

Oharrak

- Ondasun edo jarduera **berrien** kasuan: ordainketa banketxean helbideratu ahal izateko, aurrez zergadun moduan alta eman behar zaizu. Horretarako, honako dokumentu hauek ekarri beharko dituzu: jabetzaren eskriturak edo alokairu kontratua (maizterra izanez gero).
- Helbideratze agindua alda edo ezeztatu daiteke. Eskaeraren iraupena mugagabea da, eta besterik jakinarazi ezean, ez da beharrezkoa berritzea.
- Zerga edo tasa bakoitzak helbideratze desberdina izan dezake.
- Helbideratutako erreziboak borondatezko epearen azken egunean zordunduko dira adierazitako banketxe eta aurrezki kutxetan.
- Gerora zure izenean etor litekeen edozein errezibo helbidera dezakezu (likidazioak ez)

